

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

17 osasun zentrok badaukate dagoeneko Internet bidez hitzordua aurrez hartzeko sistema

Sistema berria Lehen mailako Arretaren Kalitatea Hobetzeko Planean dago jasota eta otsailean ezarri zuten

Jueves, 24 de marzo de 2011

Gaurtik, martxoaren 24tik hasita, Nafarroako oinarrizko hamabi osasun barrutitako (Altsasun, Berriozarren, Burlatan, Cascanten eta Azkoieneren, eta Iruñakoak Azpilagañan, Txantrean, II. Zabalgunean, Milagrosan, Rochapean, San Jorgen eta San Juanen) herritarrek haien osasun zentrok medikuarenean



Cristina Ibarrola eta Javier Apezteguía

hitzordua [internet bidez](#) eskatu ahal izango dute. Pasa den otsailaren 14an zerbitzu hori ematen hasi ziren beste bost zentrotan (Iruñako Antsoainen eta Ermitagañan, Atarrabian, Tafallan eta Mendebaldeko Tuteran).

Gauzak horrela, Nafarroako Lehen mailako Arretaren Kalitatea Hobetzeko Planean jasota dauden 17 zentrok eskaintzen dute dagoeneko zerbitzua. Hala adierazi du gaur Cristina Ibarrolak Lehen mailako Arretaren zuzendariak zerbitzu berria aurkezteko egin den ekitaldian. Javier Apezteguiak Lehen mailako Arretako Zuzendaritzako Kudeaketa Klinikoaren eta Informazio Sistemen Zerbitzuko buruak ere parte hartu du.

Internet bidez hitzorduak hartzeko aukerari esker, Lehen mailako Arreta zerbitzuaren asmoa pazienteen irisgarritasuna hobetzea eta hitzorduak hartzeko orduan bizkorragoak izatea da, bai telefono bidezko hitzorduak bai osasun zentroan bertan lortutakoak, familiako medikuarekin, pediatrarekin, erizainarekin nahiz gizarte langilearekin. Aplikazio informatiko horretan, gainera, profesional bakoitzak telefonoz konpon ditzakeen kontuak daude zehaztuta eta haurren (elikadura, nutrizioa, kolikoa, ariketa fisikoa, ohiko idorreria, higiena, segurtasuna, azaleko arazoak, inkontinentzia, insomnia) zein helduen (tabakismoa, ariketa fisikoa, ohiko idorreria, higiena, segurtasuna, bizkarreko arazoak, inkontinentzia, insomnia, pisu arazoak, etab.) ohiturak artatzeko eta zaintzeko orduan jarduteko moduari buruzko informazioa ematen du.

Zerbitzu berriari esker hainbat kontu burokratiko ere konpon daitezke osasun zentrorra joan beharrik izan gabe eta hitzordurik gabe: txostenak,

ohiko erabilerako errezetak eskatzeko, prozesu kronikoetan aldizka analisiak egiteko, pixohialak berritzeko edo botiken oniritziak lortzeko, ospitaleratutako pazienteen alta edo baja medikoa izateko.

Webgune hauen bidez balia daiteke zerbitzu hori: www.navarra.es edo www.citasalud.navarra.es.